

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Erakundea: KIROLGI FUNDAZIOA
Programa: 010 - Kiroldun Fundazioa

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Handia

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Pertsona helduak

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Aisia eta kirolerako aukera izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

2005ean hausnarketa estrategiko bat egin zen, eta ondorioetan hainbat faktore zehaztu ziren, zeharka garatu beharrekoak jardun ildo guztietan eta errendimendu handiko kirolaren esparruan. Faktore estrategiko horietako bat "Emakumeen Kirola" izan zen. Lorpen nagusia Kiroldun Fundazioaren dirulaguntzen onuradunen kopurua eta emandako diruzko zenbatekoa orekatzea izan da. Gaur egun, ia % 50eko parekotasuna dago onuradunei dagokienez, eta emakumeen kirolera bideratutako baliabide ekonomikoen % 53,57. Urtero eskatzen zaie taldeei eta kirolariei, dagozkien hitzarmenen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak genero berdintasunaren inguruan egiten dituen ekintzetan inplikatzeko. 2025ean Bera Bera RT taldeak Erreginaren Kopan parte hartzen lagundu du. Emakumezkoen eskubaloia talde honek Liga, Superkopa eta Erreginaren Kopa tituluak lortu ditu, Gipuzkoan errendimendu handiko emakumezkoen eskubaloia egoera onean dagoela berretsiz. Zentzu horretan, 2026ko Erreginaren Kopa Gipuzkoan antolatzea eta ospatzea aurreikusten da. Era berean, CGR Donosti taldeak Emakumezkoen Gimnastika Erritmikoko Ohorezko Mailan parte hartzen lagundu du, eta Zarautzen eta Urretxun egoitza duten emakumezkoen txirrindularitzako bi giturak mantendu dira, Espainiako Kopan emaitza onak lortzen ari direnak.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)